

Argitalpenak

Diskoteka

IKER BARANDIARAN

Estepako otsoaren rock heldua

Gasteizko Alex Ferreirak zainetan darama rocka. Los Padrinos talde izerditsua zen gidari izan zenak gerora Euskal Herriko ehunka taberna eta zulo bisitatu ditu El Hierro izenpean, gitarra alboan zeukala: berak sortutako kantuak, Dylanenak, Stonesenak eta beste hainbatena sentimendu handiarekin eskainiz. Azken aldian, baina, burdinari ondo eusteko bidaide aproposak aurkitu eta Los Ajustadores osatu du. Hitzek hausnarketa kutsua daukate, kanpoan gauzez eta errepidean ibili den estepako otsoak itzuleran idatzitakoak, alajaina. Era berean, rocka egiten jarraitzen badu ere (zer, bestela?) azeleragailua gutxiago sakatu eta M-Clanen tamainako sustraidun rocka aukeratu du, tarteka AEBetako hegoaldearen usaina duena eta gitarra eta hammond doinu ederrez borobildutakoa. GP diskoetxearen azpi-zigilu batek kaleratu du.



El templo del rock

Los Ajustadores

ES3

Iraupena: 49'09"
15 euro

ALEX "EL HIERRO" - LOS AJUSTADORES

«Kantuetako batzuk baladak direla uste duenak etxean marihuana erreta eta burua joaten utzita entzun ditzala»

Non kokatuko zenuke "Rockaren gotorlekua"? Gustura gelditu zara emaitzarekin?

Rockaren gotorlekua bakoitzaren zilborraren erdian kokatuko nuke. Niretzat gotorlekuak ate bat irudikatzen du, ukiezina eta uki daitekeena batzen dituen atea. Leku horretatik gero eta hurbilago nago. Gustura nago emaitzarekin, baina beti dago zer hobetu. "Astea kargatutako errebolbera da eta astelehenak ondo-ondotik botatuko tiroak". Esaldi polita. Zer arma beharko genuke astearen bukaeran bizirik irauteko?

Arnasa ondo hartu, gehiegi ez pentsatu, ahal den beste sentitu, gauzak serioegi ez hartu eta ahalik eta barre gehien egin.

Asko kosta zaizu "gauerdiko trena" hartzea eta "zure leihoko distira" berreskuratzea? Los Padrinosen autotik jaitsi eta beste errepide lasaiago bat hartzea?

Tren hori askotan hartzen dut, nahiz eta batzuetan alde egiten uzten diodan. Garrantzitsuena da arretaz ibiltzea eta behar denean trena hartzea.

Jakin-mina daukat: aitarekin zorretan zaude rocka zainetan daramazulako?

Nire aitak nahi zuen ni edozer gauza izatea rock musikaria izan ezik, baina naizena beragandik dator; ezin nintzen beste ezer izan. Bai, neurri handi batean, berari zor diot.

Zer da "Rockaren zirkua"-k daukan onena eta txarrena?

Onena igoera da eta txarrena badakizu...

"Nire inguruan jende asko behar dut, baina ezin diet egunero-egunero guztiei aurre egin".

Bai. Sortzaileak bakardadea behar du, baina aldi berean gizakiak besteekin egon behar du, nahiz eta askotan kalte egin.

Norbaitek zure kantuetako batzuk baladak direla esango balizu zer erantzungo zenioke?

Nire abesti geldoenak ez dira baladak. Baina hala pentsatuko balu gomendatzen diot etxean lasai entzun ditzala, marihuana erre dezala eta utz diezaiola joaten bere buruari.

Zer daukate Calamarok eta Sabinak beste askok ez dutena?

Argentina eta hango rock aitzindaria, ahots alprojena, eta inguruko hitz onenak.

